

# KANBOKO HERRIA

## Pirinio-Atlantikoetako departamendua

### BILKURA AGIRI LABURRA

### 2018KO AZAROAREN 26KO

### HERRI BILTZARREKO SAIOA

Bi mila eta hemezortziko urteko azaroaren hogeita seian, behar bezala deituriko Herri Biltzarra herriko etxean bildu zen, JOUGLEUX Bernadette Auzapez Anderearen lehendakaritza pean. Saioa 19:00etan abiatu zen.

Presente ziren: Bernadette Jougleux Auzapez anderea, Christian Devèze Jn., Eliane Noblia And., Frédéric Bardin Jn., Pascale Lespade And., Didier Irastorza Jn., Eliane Aizpuru And., Henri Saint Jean Jn., Anne-Marie Pontacq And., axuantak, Vincent Bru Jn., Vincent Goytino Jn., Christiane Hargain-Despéries And., Patrice Dor Jn., Jean-Jacques Lassus Jn., Argitxu Hirigoyen And., Jean-Noël Magis Jn., Peio Etchelecu Jn., Roger Barbier Jn., Carmen Gonzalez And., Pascal Bourguet Jn., Véronique Larronde And., Argitxu Hiriart-Urruty And., Philippe Bacardatz Jn., Nathalie Aïçaguerre And., Amaia Beyrie And., hautetsiak.

Barkatuak: Yolande Huguenard And., Corinne Othatceguy And., Maryannick Hirigoyen And., Camille Jenvrin Jn., hautetsiak.

Ahalordeak: Yolande Huguenard Andereak Christiane Hargain-Despéries Andereari, Corinne Othatceguy Andereak Eliane Noblia Andereari, Maryannick Hirigoyen Andereak Carmen Gonzalez Andereari, Camille Jenvrin Jaunak Bernadette Jougleux Andereari.

#### **1 – Saioko idazkariaren izendatzea**

Presente zirenek **aho batez** Argitxu Hirigoyen And. hautatu zuten saioko idazkari izateko.

#### **2 – Aitzineko saioaren bilkura agiriaren onartzea (txostengilea Auzapez Anderea)**

Herri biltzarrari 2018ko uztailaren 23an iragan zen Herri Biltzarraren bilkura agiria ontzat ematea galdegin zitzaion.

**Aho batez onartua**

### **3 – Tokiko Hirigintza Planaren berrikustea (txostengilea Blandin Jn.)**

Kanboko THPa 2009ko azaroaren 9an delibero bidez onartu zen eta, azken aldiz, 2014ko urtarrileko 27an jakinarazi eta berrikusi zen.

Kanboko THParen berrikuste orokorra 2017ko uztailaren 21ean agindu zen eta, 2017ko urtarrilaren 13an gertatu zen eskumen eskualdaketaren ondorioz, 2018ko urtarrilaren 13an Euskal Hirigune Elkargoko Kontseiluaren aginduz finkatu.

Finkatu zen THPa, 2018ko urtarrilaren 23 eta 24an pertsona publiko eta asoziatuei jakinarazi zitzaien, zeinetarik batzuek haien iritzia agertu zuten. Iritzi horiei erantzunez, inkesta publikoko txostenean memoriari bat gehitu zitzaion, publikoari aurreikusiriko aldaketen berri emateko gisan. Zonakatze planoan, publikoaren arreta erakartzeko informazio laukiak gehitu ziren.

Inkesta publikoa 2018ko agorrilaren 13tik 2018ko irailaren 22ra Kanboko Herriko etxean eta Euskal Hirigune Elkargoko egoitzan iragan zen. Txostena sarean eskuragarri da EHEko webgunean, herriko etxeko webguneak orri horretara lekualdatzen zuen lotura bat duelarik. Paueko administrazio auzitegiak ikerketa mandatari gisa Ferrand Lagrille Jauna izendatu zuen. Herriko etxean lau permanentzia bermatu zituen. Ikerketa horren ondorio txostena 2018ko urriaren 28an eman zuen.

2018ko urriaren 28an, ikerketa mandatariak, inkesta publikora aurkeztua izan zen eta, pertsona publikoek eta antolakunde asoziatuek agertu iritziaren ondotik, zazpi erresalbu eta gomendio barne hartzen zituen THParen txosten berrikusiari buruzko ondorio arrazoituak eta aldeko iritzia eman zituen.

Finkaturiko THPari ekarri nahi zitzaizkion aldaketak kontuan harturik eta, inkesta publikoko txostenean gehituak izan ziren pertsona publiko eta asoziatuek agertu iritziaren, bilanean agertzen ziren publikoaren oharren eta ikerlari mandatariak saioan azalduriko ondorio eta iritziaren ondorioz komisarioaren erresalbu gehienak altxatu ahal izateko, THP proiektua Herri Biltzarrean aurkeztu zen bezala aurkez zekiokkeen Euskal Hirigune Elkargoari, honek ontzat eman zezan.

Euskal Hirigune Elkargoak ontzat eman aitzin, Herri Biltzarrari Tokiko Hirigintza Planaren berrikustearen printzipiozko adostasuna agertzea proposatu zitzaion.

**Presente ziren gehiengoaren aldeko bozkarekin Herri Biltzarrak proposamena ontzat eman zuen.**

*Argitxu Hiriart-Urruty And., Philippe Bacardatz Jn., Nathalie Aïçaguerre And., Amaia Beyrie And. aurka bozkatu zuten.*

*Peio ETCHELECU Jn., Vincent Goytino Jn., Patrice Dor Jn., Pascal Bourguet Jn. ez zuten bozkatu.*

### **4 –Kanbo Behereko eskolan den prefabrikatuaren ordezkari kanpoko eraikin baten eraikitzea (txostengilea Magis Jn.)**

2018ko ekainaren 4ko delibero bidez, Herri Biltzarrak Kanbo Behereko eskola publikoan den prefabrikatuaren ordezkari kanpoko eraikin baten eraikuntzarako lan merkatua eskuratu zuten enpresen izendatzea ontzat eman zuen.

Obrak 2018ko uztailaren abiatu ziren. Prefabrikatuaren suntsitze fasean zehar, eraikinaren gibelean ziren bi edikulu suntsitu ziren. Bestalde, eraikinaren gibeletako ekialdean zen euste-horman, aterpearen ondoan, infiltrazio garrantzitsuak egiaztatu ziren.

Eraikin publiko horretarako irisgarritasuna indartzeko eta ikasleen aire-hartze eremuaren hedadura handitzeko, obra koordinatzaileak eraikin berriaren kokagunea aldatzea proposatu zuen azalpenerako laburpen oharrean aipatu bezala.

Aldaketa horiek 2. loteko egokitze tekniko eta finantzarioa beharresten dute: Ustabat sozietatearekin zergarik gabeko 85.000 €-ko zenbatekoarendako izenpeturiko obra larria.

Herriko Biltzarrari galdegin zitzaion: obra larriarekin loturiko 2. loteari ekarri aldaketak onartzea, Auzapez Andereari zergarik gabeko 10.617,50 €-ko zenbatekoarendako lan hauek egiteko izendatua den Ustabat sozietatearekin 2. loteko merkatuaren gehigarria izenpetzeko baimena ematea eta, Auzapez Andereari, zentzu horretan doazen desmartxa oro abian emateko eta honekin loturiko dokumentu oro izenpetzeko ahalmena ematea.

**Aho batez onartua.**

## **5 – Herriaren Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoko herriarteko hirigintza zerbitzuarekin bat egitea (txostengilea Bardin Jn.)**

Herri Biltzarrari, TKAPko hirigintza zerbitzuarekin bat egiteari buruzko alde agertzea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean aipatu bezala.

**Presente ziren gehiengoaren aldeko bozkarekin onartua**

*Argitxu Hiriart-Urruty And., Philippe Bacardatz Jn., Nathalie Aïçaguerre And., Amaia Beyrie And. ez zuten bozkatu.*

## **6 – EHE : Eskualdaturiko Kargen Ebaluaketarako Tokiko Batzordearen txostenen ontzat ematea (txostengilea Devèze Jn.)**

Herri Biltzarrari 2018ko urriaren 16ko KETBaren 1. txostena ontzat ematea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean aurkeztu bezala.

**Aho batez onartua**

Herri Biltzarrari 2018ko urriaren 16ko KETBaren 2. txostena ontzat ematea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean aipatu bezala.

**Aho batez onartua**

## **7 – 2019ko tarifakazioa (txostengilea Devèze Jn.)**

Herri biltzarrari 2019 urterako herriko tarifak finkatzea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean aurkeztu bezala.

**Aho batez onartua**

## **8 – Aterpetzerik Gabeko Aisialdi Zentroa: hitzarmena sokorri zentroarekin (txostengilea Noblia And.)**

Herri Biltzarrari, Kanboko sokorri zentroarekin hitzarmen bat izenpetzeko baimena Auzapez Andereari ematea galdegin zitzaion, asteazken arratsaldetan eta eskola opor garaietan suhiltzaile nahiantak guardian eta esku hartze batera joan beharrean direlarik aisialdi zentroan lehentasunezko harrera jaso dezaten.

**Aho batez onartua**

## **9 – Diru laguntzak (txostengilea Auzapez And.)**

Herri Biltzarrari Euskal Herriko Gazteen Gerorako Tokiko Misioari 9.731 €-ko diru laguntza esleitzea onar zezan galdegin zitzaion.

**Aho batez onartua**

Herri Biltzarrari 4.000 €-ko diru laguntza Kanboko Behereko besta komiteari esleitzea onar zezan galdegin zitzaion.

**Aho batez onartua**

Herri Biltzarrari 1.000€-ko diru laguntza Saltzaile eta Artisau Batasunari esleitzea galdegin zitzaion, 2018 abenduaren 8ti 25era iraganen zen merkataritza hamabostaldiko diru mailako parte hartze gisa

**Aho batez onartua**

Herri Biltzarrari 1.000 €-ko diru laguntza Cités-Unies-Franceri esleitzea onar zezan galdegin zitzaion, Indonesia jo zuten lurrikara eta tsunamiaren kaltetuei dohaintza bat egitea ahalbidetzeko.

**Aho batez onartua**

## **10 – Eссор basque txirrindulari lasterketa: 2019ko hitzarmena (txostengilea Irastorza Jn.)**

Herri Biltzarrari, 2019ko otsailaren 3an iraganen den eta abiapuntutzat Kanbo herria ukanen duen 2019ko txirrindulari lasterketa antolatzeke, Auzapez Andereari Eссор basquekin hitzarmena izenpetzeko baimena ematea eta 2.000 €-ko ekarpenaren esleitzea ontzat ematea galdegin zitzaion.

**Aho batez onartua**

## **11 – Korrika 2019 (txostengilea Etchelecu Jn.)**

Herri Biltzarrari, herriak Korrika 2019an finantza mailan parte hartzea ontzat eman zezan galdegin zitzaion, hots:

- Korrikalaria publizitate euskarria erostea zeinean, 150 €-ren truk, herriaren izena eta logoa agertuko den,
- Herriaren izenean, 300 €-ren truk kilometro baten erostea.

### **Aho batez onartua**

*Amaia Beyrie And. ez zuen bozkan parte hartu.*

## **12 – Txakurrak Herriarteko Sindikatua (txostengilea Barbier Jn.)**

Herriko Biltzarrari galdegin zitzaion:

- Uztaritzeko herriak sindikatu horrekin bat egiteko galdea luzatzearen ondorioz, Txakurrak estatutuen aldaketa ontzat ematea
- Herriaren ekarpenaren 0,20 €-ko emendatzearen alde agertzea, herriaren biztanleko kostua 1,60 €-ra eramanez.

### **Aho batez onartua**

## **13 – Hilobien salmentaren tarifa finkatzea (txostengilea Magis Jn.)**

Bi tokiko bi hilobi berriren sortzearen ondotik, Herriko Biltzarrari hauen salmenta prezioa 2.115 €-tan finkatzea proposatu zitzaion.

### **Aho batez onartua**

Lau tokiko hilobi baten berriz erostearen eta honen berriz esleitzearen baitan, Herri Biltzarrari salmenta prezioa 1.927 €-tan finkatzea proposatu zitzaion.

### **Aho batez onartua**

## **14 – Herriko bideen egoerarekin loturiko kalteak herriak, salbuespenez, beregain hartzea (txostengilea Magis Jn.)**

Partikular batzuek, errepide batzuen egoera txarraren (zilo, bidebazter sendotu gabeak...) ondorioz haien ibilgailuek jasan zituzten kalteek sorturiko fresen ordainketa galdegin zioten herriari.

Herri Biltzarrari jatorrizko aitzinkontuan diru kopuru bat aurreikustea proposatu zitzaion eta, urtean zehar erregistraturiko gauzatzeak kontuan harturik, honako saioko bozkan proposaturiko erabaki aldatzaileari 1.000 €-ko maileguak esleitzea.

### **Aho batez onartua**

## **15 – Aurrekontu nagusiko 2. erabaki aldatzailea (txostengilea Devèze Jn.)**

2018ko finantza aldiko artikulua batzuetarako aurreikusiak ziren mailegu batzuk guttiegi zirela gogoan harturik, Herri Biltzarrari aurrekontu nagusiko 2. erabaki aldatzaile proiektuari buruzko iritzia agertzea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean aurkeztu bezala.

**Aho batez onartua**

## **16 – Aldez aitzinetik eginiko inbestimendu xahutze maileguak (txostengilea Devèze Jn.)**

2018ko finantza aldiaren zehar, herriak, inbestimendu programa batzuk abian eman zituen eta hortik heldu dira 2019 hastapenerako kontratuzko eta finantzazko engaiamendu batzuk. Hala ere, diruzaintza ikuspuntutik, inbestimendu maileguak 2019ko jatorrizko aitzinkontuaren baitan ireki ez diren bitartean ezin dira 2019ko urte hastapenean harturiko finantzazko engaiamenduak bete.

Herri Biltzarrari 2019ko finantza aldi hastapenerako inbestimendu xahutze maileguak alde aitzinetik irekitzeari buruzko deliberoa hartzea galdegin zitzaion, zenbatekoa 2018ko finantza aldiko jatorrizko aitzinkontuaren %25eko heinekoa litzatekeelarik, azalpenerako laburpen oharrean zehaztu bezala.

**Aho batez onartua**

## **17 – Eremu publikoan diren abereen kudeaketari loturiko gastuen ordainketa (txostengilea Auzapez And.)**

30 Millions d'Amis elkarteko nahiant batek herriko lurraldean diren jaberik gabeko gatuen harrapatzea harengain hartzen du. Pertsona honek burutzen duen lana onura publikoko lantzat jo daitekeela kontuan harturik, Herri Biltzarrari pertsona honen ondoko egitateetarako joan-etorri gastuak beregain hartzearen alde agertzea galdegin zitzaion. Horren kostua ekintza bakoitzeko 40 km-ren heinekoa litzateke indarrean den baremo kilometrikoa aplikatuz (batz besteko tasa 0,32 €/km, hots, 12,80 € harrapaturiko abere bakoitzeko).

**Aho batez onartua**

## **18 – Arnaga: ministerio operazioa “kultura zure etxetik hurbil” (txostengilea Pontacq And.)**

2018ko udaberrian Kultura ministerioak abian emaniko “Kultura zuren etxetik hurbil” planaren baitan, herriak Orsay erakustokiko “catalogue des désirs” bildumako 206 zenbakidun Clémentine-Hélène Dufauren autoerreturatu prestatzea galdegin zuen, Frantziako erakustoki labela duen Edmond Rostand – Arnaga etxea erakustokian ikusgai emateko. 18.300 €-ko estimazioa duen garraio eta asurantz hartze gastuak DRACek hartuko lituzke beregain.

Herri Biltzarrari, operazio horretarako diru laguntza ahal bezain handia eskuratzeko DRACarengana jotzeko baimena Auzapez Andereari eman ziezaion galdegin zitzaion.

**Aho batez onartua**

## **19 – Saneamendu zerbitzu publikoa: 2018 urteko txostena (txostengilea Devèze Jn.)**

Herri Biltzarrari saneamendu zerbitzu publikoaren prezio eta kalitateari buruzko 2017ko txostenaren berri hartzea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean aurkeztu bezala.

**Bozkarik ez**

## **20 – Langileak**

### **20-a: Funtzioak, Menpekotasunak, Aditasuna eta Engaiamendu Profesionala –FMAEPOA (fr. RISEEP) kontuan hartzen dituen Ordainsari Araubidea (txostengilea, Auzapez And.)**

Auzapez Andereak, 2004ko otsailaren 12ko delibero bidez Kanbo herriko langileendako ordainsari araudi bat plantan eman zela oroitarazi zion Herri Biltzarrari.

2016ko urtarrilaren 1az geroztik, Lurraldeko Funtzio Publikoko ordainsari araudiko erreferentziazko tresna Estatuko funtzio publikoetarako plantan eman zen funtzioak, menpekotasunak, aditasuna eta engaiamendu profesionala kontuan hartzen duen araubide berria (FMAEPOA) da.

Herri Biltzarrari elkargoko langileen aldeko ordainsari araudi berria pantan ezartzeari buruzko iritzia agertzea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean zehazki aipatu bezala.

**Aho batez onartua**

### **20-b: Graduz goratzea (txostengilea Auzapez And.)**

Herriko Biltzarrari, graduz goratze baten baitan 2018 abenduaren 1etik aitzina 1. mailako administrari-laguntzaile nagusi lanpostua sortzeari buruzko iritzia agertzea galdegin zitzaion.

**Aho batez onartua**

### **20-c: Lan denboren aldatzea (txostengilea Auzapez And.)**

Herri Biltzarrari, denbora ez osoko ondarearen laguntzaile enplegu baten lan denboraren emendatzearen alde agertzea galdegin zitzaion (28 oren asteko). Ondorioz, 2019ko urtarrilaren 1etik aitzina denbora osoko ondarearen laguntzaile enplegu bat sortuko litzateke.

**Aho batez onartua**

## **20-d: Formakuntzarako araudia (txostengilea Auzapez And.)**

Herri Biltzarrari elkargoko langileen formakuntzarako araudia ontzat ematea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean aipatu bezala.

**Aho batez onartua**

## **20-e: Kudeaketa Zentroko - KuZ – hitzarmen berriarekin bat egitea (txostengilea Auzapez And.)**

Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio publikoko Kudeaketa Zentroak, diziplina anitzeko talde batez (prebentziorako aholkulariak, ergonomistak, laneko psikologoak, gizarte laguntzaileak, elbarritasun solaskideak) lagunduriko prebentziorako laneko medikuen esku hartzea aurreikusten duen Osasun eta lan baldintza hitzarmen berria proposatu zuen.

Herri Biltzarrari, 2019ko urtarrilaren 1etik aitzina herriak KuZeko osasun eta lan baldintza hitzarmen berriarekin bat egitearen alde agertzea galdegin zitzaion, azalpenerako laburpen oharrean aipatu bezala.

**Aho batez onartua**

## **21 – Bi margolanen dohaintza (txostengilea Auzapez And.)**

Herriko Larre Jaun-Andereek, Hugard De la Tour margolariaren bi margolan oparitu zizkioten herriari.

Herriko Biltzarrari dohaintza horren alde agertzea galdegin zitzaion.

**Aho batez onartua**

## **22 - Auzapezaren erabakien jakinaraztea (txostengilea Auzapez And.)**

Herri Biltzarrak jakinarazte horien berri hartu zuen.

**Bozkarik ez**

Aipagaiak finiturik, saioa 22:20ean bururatu zen.